

## ORIXEREN EREDUAK

(Mistral eta Orixe)

Lehen urte ospatzen gozaz jutzen Orixe parte zintzulari. Orain 50 urte eta piko, F. Mistralen lanak ere eban arteak eta lehen Orixe, Orixe, orain onentzen dages, no, procedurak eta ebaner henen fuskatzen idazte raena, agurari nahi nuke, bi pertsonak eta bi honoreak bere berezitate eredu gisa erabiliz. Beraz, "Orixeren ereduak" bezala erabiltzen dituzte, "Orixe eta Orixe" izan, ezaketen izenburu-  
ga. Hain "Orixeren Mistral", Mistralak eta Orixe ereduak bere buruen proiektu-  
ak dira.

(Mistral eta Orixe)

Orixe eta Orixe ereduak, hainbat indarrek eta indarrek, hainbat indarrek, hainbat  
Orixe eta Orixe ereduak, hainbat indarrek eta indarrek, hainbat indarrek, hainbat

Orixe eta Orixe ereduak, hainbat indarrek eta indarrek, hainbat indarrek, hainbat  
Orixe eta Orixe ereduak, hainbat indarrek eta indarrek, hainbat indarrek, hainbat

Orixe eta Orixe ereduak, hainbat indarrek eta indarrek, hainbat indarrek, hainbat  
Orixe eta Orixe ereduak, hainbat indarrek eta indarrek, hainbat indarrek, hainbat

## Orixeren ereduak (Mistral eta Orixe)

Orixe eta Orixe ereduak, hainbat indarrek eta indarrek, hainbat indarrek, hainbat  
Orixe eta Orixe ereduak, hainbat indarrek eta indarrek, hainbat indarrek, hainbat

Joxe Azurmendi

Orixe eta Orixe ereduak, hainbat indarrek eta indarrek, hainbat indarrek, hainbat  
Orixe eta Orixe ereduak, hainbat indarrek eta indarrek, hainbat indarrek, hainbat

Donostian, EUTGn, 1987ko abenduan

## ORIXEREN EREDUAK

### (Mistral eta Orixe)

Ehun urte ospatzera goaz aurten Orixe sortu zitzaigula. Orain 50 urte eta piko, F. Mistralen jaiotzako ehun urtegarrenean hain zuzen, Orixe, orain omentzen dugunak, probentzalaren omenez hemen Euskadin idatzi zuena, gogoratu nahi nuke, bi pertsonaiok eta bi ehunurteok bata bestearen ispilu gisa erabiliz. Beraz, "Orixeren ereduak" bezala iragarri den hitzaldi honek "Mistral eta Orixe" izan zezakeen izenburua. Edo: "Orixeren Mistral", Mistralekin Orixeren aitortza edo bere buruaren proiektzioa ulertuz.

*Aurre-ohar* batzuk, lehenengo:

1. Haundiak egitean, haurrek, batzuek andereñoak izan nahi lukete; karreristak, piloitoak, sendagileak, pilotariak, beste batzuek, etab.

Haurrek eredu batzuk badituzte begien aurrean eta horiek gauzatu nahi litzukete. Ereduok, bistan da, bakoitzak bere inguru-girotik hartzen ditu, ez dituzte haurrek asmatzen.

Nolabait ereduak denok dauzkagu buruan, haundiok ere. Gure bizitza eta ekintza gidatzeko arauak bezala izaten dira, trafiko-seinaleak bezala. Horietan ikusten da guretzat zer dagoen ondo, zer gaizki, ederra zer den, jendearen izaeran, pentsaeran, ibileran; edo bizitzan dauden aukera desberdinen artean, zer aukera modu egiten den. Gure izarrak.

Ez dugu pentsatuko, gogoeta sakon baten ondoren ikasi eta aukeratu egiten ditugunik eredu horiek. Gehienetan ohartu ere ez dugu egiten, eredu horiek baditugunik eta gure praxian horietaz baliatzen ari garenik. Erregulatzailer automatiko gisa, berez funtzionatzen dute, gure barnean. Izatearekin bakarrik, ordea, eredu edo tipo konkretu batzuk izaten gara, tipo honetakoxea bat eta ez bestelakoa. Orixe eta Lizardi, edo Lauaxeta, tipo diferenteak ziren, eredu desberdinetan orientatu ziren, literatura desberdina sortu dute.

Uste dut, ulertzen dela, zer adierazi nahi dudan Orixeren ereduak honela aipatzean. Ez dut esan nahi, literaturan zeinen bidearen jarraitun izan nahi zuen edo ageri den; nor izan zuen modelo eta maisu, imitatzeko. Esan nahi dut, aitzitik, Orixe izan zen gizonak, zeintzu balioen munduan situatzen zuen bere burua, bere egitekoa. Zeintzu ziren Orixeren eredu mental nagusi batzuk, pertsonal-etikoak, sozialak, estetikoak.



Adibidez, oraindik asko ez duela, diferentziak berriro nabaritu dira Txillardegiren edo Joxe Austín Arrietaren eta Bernardo Atxagaren artean, zein den literatura- ren eginkizuna. Azken finean garbi dago, uste dut, problema ez dagoela literatura “hutsa” –kontzeptua– ulertzeko modu diferenteetan bakarrik. Inplikaturak geratzen dira, literato izate hori pertsonalki nola ulertzen duen bakoitzak bere kasuan; Euskadiko egoeran nola situatzen duen bere burua, nola literatura; zertara sentitzen den obligaturak pertsona bezala, edo zer aukeratzen duen gizartean bere lekutarako. Balorazio mundu bat dago bilduta. Eritzi puntual batzuk baino lehen, bakoitzaren eredu orokorrak dira diferenteak. Balorazio sistemak, jarrerak munduaren aurrean.

Ereduok, zentzu honetan, bakoitzak duen munduaren eta bere buruaren ikusmoldea labur-biltzen dute. Orixeren ereduaren azalpen honetan, hortakoz, mila bider aipaturako gorabeheren labur-bilduma antzeko zerbait –ezer berririk ez behintzat– eskaintzen saiatu nahi nuke. Eskema simple, garbi bat. Testu oso llaburretan oinarrituko naiz: 1930 ean *Mireio*-ren itzulpenari (M), eta 1935ean *Euskaldunak* poemari (E) egindako hitzaurretxoetan (1). Ez zituen Orixek asmo horrekintxe idatziko, idatzi zituenean. Baiña testu aipatutakoak dira ikustera goazenerako, lehenago batez ere.

Has gaitzen, bada, esanez., XIX. mendeko “olerkaririk aundiena”, Orixerentzat, Mistral izan zela. Haundiena eta zindoena (M, I). “Are geiago. Mistral da agizko, mundu guzian olerkaririk miretsiena ta maitatuena XIXgarren gizaldian” (M, IV). Baina Mistral, Orixek, ez digu modelo literario gisa bakarrik aipatzen eta goratzen.

2. Gai hau “Orixeren pentsamenduaren” zati bat litzateke, pentsamendua aski zabal ulertuz gero. Baina ez du xuxen-xuxen hori izan nahi (beste norbaiten gaia da ihardunaldiotan). Ideiena baino, irudiena, idealen edo arketipoen azterketa izango litzateke hau; edo, pentsamenduarena baino, pre-pentsamenduarena.

Orixeren pentsamendu kontserbakorra, Galilei aurrekoa, etab., askotan aipatu izan dira, eta, arriskua egon liteke, berriro topiko horien sare aspergarrian katibu geratzeko, Kategoria horiek ahazteko, eskatuko nuke. Gaur gabean bederen ez digu ezer inporta horrek denak. Oztopo bakarrik egingo liguke.

Gauzak diren bezala ikusi nahi ditugu gaur gabean. Balorazioetan eta sartu gabe. Europak, Estatu modernoaren garapenean eramandako bideetan, mota askotako krisiak pasa ditu: erlijiosoak, sozialak, politikoak, zientifikoak, ekonomikoak. Baina krisi horiek ez dituzte bazter denak berdin jo. Ingalaterran, Frantzian, Alemanian, desberdin izan da. Hain zuzen horregatixe, krisiok bazter denak berdin jo eta xahutu ez dituztelako, oraindik European minoriak geratzen dira: mendebaldean galegoak, bretoinak iparraldean, gu eskaldunok. Hauek beren munduko errealitatea dute. Beren errealitatea dute. Horieta familiak, esate baterako, ez du jasan giro burgestu edo eskualde proletarizatuetako txikiziorik. Erlijioak ez du afrontatu izan Erreforma edo erlijio-gerrak ezagutu dituzten lekuetako proba moralik ez intelektualik, apenas liberalismo antikerikalarekin edo zientzia berrieekin neurtu beharrik, etab. Laster, familia Euskal Herrian oraindik patriarkala edo tradizionala dela, esaten bada, adibidez,

(1) Ondorengoan aipatu argitalpenon arabera egingo dira, testuaren barruan: *Mireio* (M), Bilbo 1930. *Euskaldunak poema eta Olerki Guziak* (E), Añamendi, Donostia 1972. *Mireio*-ren hitzaurrea beste Autoreen perpaus ugariz onduta dago: haien hautapena Orixek bere interes arabera egin duenez gero, bereak balira bezala aipatuko dira lan honetan, zeini zer hartu dionezkorik gabe.



zentzurik neutroenean, edo positiboenean, ulertu beharko da: oraindik ez zuela krisiak txikitu, alegia. Beste gabe. Konstatatuko balitz bezalaxe, *Leturiaren egunkari ezkutua* pentsatu ezinezkoa dela gure gerra aurreko literaturan, Dostoievski holandar bat –Van Gogh aparte– ez genukeela jakingo nola imaginatu, Picasso bat ez zegoela egoterik 1900 baino.

Lehen, Baudelaire XVIII. mendean inposiblea dela, Aresti pasa ez den tokian ez dela Leterik etortzen. Errealitate historikoa horixe izaten da eta –Euskal Herrian derrigor Orixe bezalakoxea izan beharra zegoenik esan gabe– hori horrelaxe hartu behar dugu orain kontuan. Nikolas Ormaetxea “Orixe” jaio zeneko Euskal Herria ez zen oraingoa: Bilbo, orain Eibar bezalakotsua zen, 40.000 bizilagun ingururekin; Barakaldo, oraingo Lezoren antzekoa. Euskal Herria gizarte tradizionala zen zentzurik positiboenean. Eta herri horretan Orixe deritzon poetan bat zegoen, Orexan jaioa eta Uitzin hazia.

## 1. GIZA EREDU KRISTAUA

Nolakoa imaginatzen dugu –edo imaginatzen dugu, bahar zukeela garai hartako norbaitek Euskadin imaginatu– euskaldun jator, bere familiaren buru bikain, erduzko bat, giza tipo edo pertsona bezala? Hona hemen Orixek nola azaltzen duen Mistral eta haren etxeko giro gizatiar-erlijiosoa.

### 1.1. Sinesmenean sendo bizitzan edo heriotzan

Hasteko, Mistral zein izan zen aurkezten hasi eta, ikusiko dugu, Orixek sekula ez duela isolatuki hartzen. Indibidualki. Pertsona soila bera ezer ez da. Zeren-bait izaten familian edo herrian bakarrik hasten da, taldean ageri da norbait inor. Mistral zein den, beraz, Orixeren begibidean, elkargoan deskubritzen da, familian aurrenik.

Mistralen aita gizon handi ederra zen; hitzez bera betekoa, behartsuekin onbera eta –Orixek hala dio– bere buruarekin bakarrik latza (M,I). “Siñismen sendoa zizun. Gau oro, uda ta negu, etxeko otoitzak berak ematen zitun aurretik, mintzo ozenez, eta gaualdiak luzatzen asteneko, seme ta mutilleri Ebangelioa irakurtzen zien. Egualdirik txarreanean ere pozik zagon, eta aizeen nigarra edo euri-yasaren otsa entzutean, esan oi zun: yende onak, Goiko Mutil ark badaki zer ari den, eta zeren bear geran” (M, I-II).

Tankera berekoa izango du semea, poeta: “gorputz ta arimaz eder” berau ere (M, IIII), familiako gizona, ama txit laztanarekin, emaztearekin gero, apala, erabidez bizi zena, “liburuaren irabaziak beartsuei banatzen zitien”a, beti kristau ona (M, V).

Greziako kategoria moralez interesatzen direnentzat esateko, gizaseme “birtutetsuaren” (*areté*-tsuaren) eredu da hori. Birtutetsua gorputz eta arimaz da eder; birtutea dohain fisiko eta izpirituala da, dena bat. Ohargarria, Orixe baitan aurkitzeko, baina ez gara arlo honetan gehiago geratuko.

Kristauarentzat bizitzako kapitulu inportante bat heriotza da. Nola bizitzen den adina, Orixeren gizona nola hiltzen den, jakin nahi genuke, haren giza eredu bila.



Heriotza kristaua –kultura bakoitzean bestela da hori– bizitzaren koroapena izaten omen da. Beraz, nolako bizitzak, halakoxea azkena.

Formalki *Mireio*-ren hitzaurrea simetria zehatzez dago eraikita. Hasieran eta bukaeran lauki dramatiko bana dago: biak heriotza eszenak dira, eta biak daude santu bizitzetako era estereotipoan desarroilatuta, Mistralen obra poetikoaren esanahi transzendental jasoagotzeko.

### 1.1.1. Aitaren heriotza:

“Aren eriotza –laurogei ta lau urtetan– aitagoi batena izan zen. Elizakoak artu ondorean, etxeko guziak inguratu zuten nigarra zeritela: enetxoak, esan zien; ba noa, ta eskerrik asko, Yainkoari zor diodanaz; nire bizitza luzea, nire lana, berak onetsi dun lana....” Ta Yau-naren eskuetan egotzi zuen bere arnasa” (M II).

### 1.1.2. Poetaren heriotza:

“Eraiki zitioten, oraino bizi zelarik, zenbait oroitzarri; baño esker onez ikusi ta ere, bere il arria zitzayon kutunenik arako idazpuru Yainkoti arekin: *non nobis, Domine, non nobis, sed nomini tuo et Provinciae nostrae da gloriam*. 1914 garrengo Epaillaren 25garre-nean, Andre Mari egunez, yaio bezala, il zen sainduki emaztearen besoetan eta gogoko Aitaren ondoan, Elizakoetaz indarturik eta Aita Saindu Pi amargarrenak bialdutako onespren berezi batekin, iru Mari santaeri Mirei’k bezala bere burua goraintziz” (M, V-VI).

Bizitza, lana eta otoitza da. Heriotza, liturgi ospakuntza bat.

## 1.2. Baserriko patriarka aitor semea

Mistralen gurasoak aitor-semeak bide ziren. Puntu honek badu bere kuriositatea, “nobletasunaren ” euskal ideologia (mitologia) bat badagoelako, eta nahiko salatu izan delako.

Baina aitoren semetasuna modu desberdinetan kontsidera daiteke. Aristokraziaren balioa, Orixerentzat, harrotasunerako titulurik, baino, marka izpirituala da batez ere. Odolezko aitor-semetasun heredatua eragozpenik ere gerta daiteke inoren benetako noblezia pertsonalerako. Mistralen guraso horiek, bada, “aitoren seme *izanik ere*” –esango du Orixe– landetxean bizi dira eta guraso –ondarea beren eskuz erabilki (M,I). Landa bizitzako lanak asko eta gogorrak badira, eginkizun guztion buru aita bera ibiltzen zen. Lana, moral honetan, birtutea da, ez desohorea.

Familia handi horretan sortuko eta haziko da poeta, hots aitagoiaren inguruan semeek zein morroin langileek batera etxean osatzen duten komunitate familiarrean, lanak bezala errezoak elkarrekin eginez.

Familiaren eredu patriarkala da Orixek azaldu ohi diguna. Aita jauna seme eta morroinengandik bihotzez hurbil bezain duintasunean urrun ageri zaigu, beti aitagoi hain zuzen: jatorriz aitor seme, lanetan zein otoitzetan buruzagi altu, gorputza haundi eta ahotsa ozen, agintari sendo, behartsuekin onbera halere, autoritatearen berezko ezaugarri eta apainduriatz horniturik. Aldean, morroinak morroin eta mutilak mutil, hierarkiaren ordenu txukunean, lanean aitagoiari obedituz edo, apal-apal eserita inguruan, haren hitzari jarraituz, ebangelioa entzuten. Familiakotasunak ez ditu horregatik difentziak borratzen.

Horra Orixek hitzaurre honetan historikoki deskribatzen edo kontatzen adina proklamatzeko digun giza eredu.

## 2. EREDU SOZIAL NEKAZARIA

Mistrak bere gizartea izan dizu. Nola situatu da poeta hori bere gizartean? Hobeto esan, interesatzen zaiguna, Orixek nola erakusten digun, da, situatuta.

Izan ere, Mistrak bederatzi-hamar urterekin utzi zuen landako bere sortetxea, ikasketak egiten eta, gero, kultura lanetan, hiriz-hiri ibiltzeko, askoz gehiago inguru eta lagunarte kultuetan (artistiko, literario, folklorikoetan), nekazari hutsetan baino. Orixeri destakatzeko interesatzen zaiona, ordea, besterik da. Orixek ez dizkigu ezertarako aipatu, esate baterako, Mistralen katramila politikoak hainbat bere lagun Maurras-gi atxeki zitzaionean, mugimendu felibrista politikoki eskuinarekin konprometatuz (Roumanille, etab).

### 2.1 Bordaldeko Mundua

Orixek azaltzen digun pertsonaia, esan legez, Maillane-ko landa herriskan sortua da, eta "leen-urteak bordaldean bakerik igaro zituen, nekazari, segari ta artzai artean" (M, I). Horrela "begiz begi" ikusten eta ikasten zituen, urtearen barnean, landako bizitzaren eginkizun haundigarriak (Ib.). Badakigu, orain omentzen dugunak nolako garrantzia ematen zion poeman (E, XXXIX, XLI), bere kantagaiak "neure begiz ikusiak" izateari.

Zein mundu horretan itsatsirik eta mundu horren goresle zeritzon Orixek Mistrali, hobeto agertuko zaigu, poetaren bokazioko pasarteak alda ditzagunean geroxeago. Beraz, "agur egin zion uriari, ta yakiñaren gaiñean, gizauren erritar au, bere landako zerua besterik ez ikusi-bearrean gelditu zen..." (M, III). "Bere lanbidean, errizale" erizten dio orobat in M, V.

Sorterriarekiko Mistralen atxekimendu edo herrizaletasun hori biziki azpimarratzen du Orixek, agian ez intentzio punttaren bat gabe. Aire modernoak hasita zeuden hemen ere, jendeari euskara, baserri giroa, tradizioak uztarazten eta mundu berri batera aldarazten, jatorri arlosteaz lotsaturik, jende jaun ibili minez. Ikasbide eskasa.,



Moxolo horiek zekartena, jende xehearentzat: baserria utzi, haundiki girotan sartu, gero euskarari muzin egin, azkenekoz tradizioak, fedea eta dena galdu. ... Gogora Unamuno: utzi gure mendiak eta gure euskara tartaila, mundu haundiarekin behar du gu atera borrokara eta neurtu, beren zelaian gailendu. Baina, bide horrexegatik, ezer irabazi ordez, dena galtzen da... Mistral, haatik, sortetxean geratu eta bere hizkuntza, jende, kultura apalaren alde borrokatu denaren erueda da, munduaren oneritzia irabazteko bere jatorriari uko egin gabe, "bere gizaldiko gizonik aundienak aipatua: Aita Santu, Erri-agintari, ta ainbeste ta ainbeste gizonek, Yubileura bezela etxera zetozkiola" (M,V). Sorleku txikia utzi eta ohoreak mundu haundiagoan biltzeko tentazioari ez zion amore eman. "Prantzi'ko akademitar izatetik alde egin zun, lendanik Provenzako akademitar zela-ta" (Ib). Bere exitoaren irabaziak berak aberriari eskaini zizkion: "Nobel-Saria Arles'ko enda-museua eraikitzen txautu zun oso osorik" (Ib.). Mistral bere herriarekin geratu da, bere herria kantatu du eta bere herriaren hizkuntzan egin du.

"Bordaldearen" bere aukeran, Mistral mogimendu intelektual eta literario zabalago baten barruan dago, Frantzia eta Europan. Orixek, Euskal Herrian, mogimendu politiko eta kultural partikular baten barruan ere badago. Euskal herria zer den, nola ulertzen dugun zer den, galdetzen bada, segun noiz eta zeini desberdin ageri zaiola, esan bear. Orixek poema idatzi duen garaian, Euskal Herriaren ikuspegi -nolabait esan- etnologiko/etnografikoa oso bortitza da. Aranzadi, Barandiaran, Azkue, Aita Donostia, Lekuonaren lanek, herri zahar honen jatortasun eta aberastasunak agerian jartzen dituzte. Harrimenez deskubritzen ari den herri hori du Orixek bere kantagai.

Poemaren hitzaurrea *Mireio*-ren itzulpenarena baino esplizitoagoa da guzti honetan. Orixek berak propio "euskal-biziera emateko asmoz" idazten du (E XXXIX); h.d, "erri bat bere oiko lanbidetan, jolasetan, ipuinetan, sukaldean, bizian, eriotzean agertu nai nizuke, gauzak eskuarki edo komunzki gerta oi diranez" (Ib.). Egin duen bere lanari buruz, "folklore edo erri-jakintzazko poema egitea gogoak eman dit" (Ib.), aitortuko du; "erri baten agerikoak oro" (Ib.), "Euskalherri osoa dut kantagai" (XLI). Ulertuko zen apika honez gero, herriaren "osotasun" eztabaidatu horrek (herri txikitxoak litzateke Huitzi horretarako!) ez duela kuantitatiboki ulertua izan nahi, kopuruz neurtua. Sinboloak eta idealak ez dira kilotan baloratzen; poema bat ez da estudio, inkesta, erreportaia bat.

Agian zerbait bitxia zera da: Orixek espreski seinalatzen duela, Mistralen kasuan erabaki propio bat egon dela hiriaren aurka eta landaren alde; eta bere kasuan ez duela hori seinalatu beharrik sentitu nonbait.

## 2.2. Nekazal bizitzaren positibotasun morala

Nekazal gizarteko bizimodua jeneralean ez da izaten oso atsegina. Baina Mistralek, "Adanek Paradisua antzo" (M, I), beti atseginez gogoratzen omen zizun bizi-oro hurra.

Ez dago idealizazio maskalik. Oinarrian hautapen moral bat dago. Beharbada beserriaren aldeko aukera hori gaur berriro ulergarriago gerta daiteke orain urte batzuk baino. Hainbat zio estetiko, ekologiko eta abarregatik egin liteke berriro hautua hiriaren kontra eta baserriaren alde. Orixeren kasuan arrazoia batez ere morala da,



zentzu zabalean zein hertsian; beharbada baita ekologikoa ere. Baina “baserri xurien” idealizaziorik inoiz ez dago. “Bizitza latza beti, baño beti zintzoa, osasungarria, bere eskukoa ta baketsua” (Ib.).

Biziera hori bere naturaltasunean kantatzen bada, herria “dan bezala” azalduz (E, XLI), fruitua poema herritar garbi, sotil bat izango da. Poeman, hortakoz, “ez dezu gertakizun ontan maratil askorik bilatu bear, ez naspil aundirik berezi bear, zenbait *novela* tzarretan bezala. Ez ta eriotzik eta beste gauza lazgarririk *dramaetan* bezala” (XXXIX).

(Egia da, zeharbidez berriro planteatzen dakigukeela auzi zahar hura –biziera sozialaren idealizazioa, zuzenean ez, baino idealizazio moralaren bitartez: ez bait dugu esan, hau ez dagoenik–, baina ez dugu hemengo arazoa).

### 3. EREDU HISTORIKO NAZIONAL PIZKUNDETARRA

Demagun, hipotesi batean, egin nahi duguna poema bat dela, eta “literatura hutsa” egitea bezala ulertzen dugula hori... Berehalaxe agertuko zaigu, espresio hori punta batetik besteraino ekibokoa dela, “literatura huts” horrek euskaraz egon behar badu behintzat. Hizkuntzaz arduratu gabeko literaturarik ez bait dago; hizkuntzaren egoeraz arduratu gabekorik ere ez, hortakoz, dagoen egoeran tresna literario guztiz problematikoa gertatzen bada, etab. Utzi egingo dugu arazo hau.

Oso diferentea da, zalantza gabe, mogimendu bat politikoki hasi, gero hizkuntzazale eta noizpait literarioki bukatu, ala, Probentzako felibrigeekin izan den bezala, aurrenik literarioki hasi, berahala hizkuntzazale eta azkenean bakarrik planteamendu politikoetara erdizka edo merdizka nolabait heldu. Halere –beharbada momentu honetan interesgarria litzeteeke hainbat ñabardura alde batera utziz– ohargarriena ereduaren funtsezko berdintasunak ematen du bietan, bestela prozesuak bata bestearen alderantziz bezala desarrolatu izan arren Probentzian eta hemen, eta horri lotuko gatzazkio.

#### 3.1 Abiapena galdutasun guztizkotik

Mistralen helburua “Proventzerari gainak ematea” izango da (M, III); Orixek, “euskerak beure liburua atera dezan”, idatzi dizu poema (E XLIII). Batak zein besteak, alabaina, galdutasun egoera guztizkotik ekin diote.

Puntu honetan poetaren egoera pertsonala eta hizkuntzaren soziala batera datoz: herria hizkuntza galduta bezala dago, poetari ere pertsonalki kendu egiten zaio bere hizkuntza. H.d., hizkuntza bera gutxitua da, “eskola guzietan gerra gogorra eta erioagarria egiten baitiote” (M III); poeta izango den haurrari, “iñoiz biurrikeriz bere izkera egiten bazun, irakasleak maxi egiten zioten” (M, II). “Bai irrikatzen zitula amak iruin bitartean kantatzen zition kantu provenzar ederrak!, seaskaren kulunkan entzun zitun olerki ukigarri aiek”. (Ib.).

Hizkuntzaren berraurkipena, egoera horretan, ezkutuka eta lagun taldetxoan gertatuko da, eta eskolan gertatuko da gainera. Egun batez Roumanille irakasle gaz-



teak *Miserere* itzultzen atzematen du Mistral. Rumanille hori bera, ezkutuka, probentzazalea genuen. "Ordun ezagutu zuan provenza-eraz bertsuak egiteko mutiko gaztearen uxia ta berak egiñak erakutsi zition beren ariko izkuntza yasotzen bizkortu zedin" (Ib.). Honela abiatzen da –lantxoak elkarrri erakutsiz, elkar sutuz– probentzeararen mogimendu Avignon-go haztetxe bateko lagun artean.

Konparazio bat ez dago egin beharrik, "jesuiten eskola" deitu izan dudaneko jendeak (Zaitegi, Andima, etab.), beren hastapenak azaldu izan dituzten moduarekin.

### 3.2. Klasikoetan norberaren autodeskubritzea

Konparazioarekin erraz jarrai liteke. Jatorria ahaztuerazi nahi lukeen eskolan, klasikoan ikasketak sustrai herritarren deskubrimendu harrigarria probokatzen du. Orain Mistralengana mugatzeko, "noizpait sartu zitzaion biotzean Homer'en, Virgili'ren eta beste idazle zar yatorren olerkia. Aietan aurkitu zitun Meillaneko lanaldi, gogai, oiturak" (M, II).

Mistral bada, grekoen antzera ihardungo da bere poesigintzan. *Mireio* argitaratzeaz zegoelako "berri ona" mundu guziko letrazaleen artean barreiatu zuen Lamartinek ikusi zuen: "Grezi'ko olerkari bat Avignon'en (M, III). Poemaren hitzaurre guztiarekin aldera bedi.

Klasikoen ereduizkotasun hori maiz-sarri aipatu da gurean eta ez du merezi luzatzea. Eredu eztabaidagarria irudi dakiguke, euskara modernotu nahi omen deneko batik-bat, baina ez du omenaldi bateko gaia ematen. Ikus bitez, nolana ere, klasikoan gaurkotasunaren alde, Onaindiaren eta Andimaren arrazoiak in *Bergili'ren idazlanak osorik*, 1966 (10, 19/20, 22, 25/26 eta 127 or.) eta Zaitegiarenak, besteak beste, in *Sopokel'en Antzerkiak*, II, 11.

Klasikoek, badirudi, erkatzen ari garen kasu bietan, konbertsio bat bezala eragin dutela. Bokazio bat biztu, bideratu. Mistralena Orixek modu franko teatrolean deskribatu du, pasarteak balio du bere osoan aldatzea.

Lege ikasketak bukatu eta Mistral etxera itzultzen da. Hain zuzen etxeko guztiak orduantxe afaltzen ari dira ("etxeko guziak" esaera birritan erabiltzen da hitzaurre honetan: hemen eta, sintomatikoki, aitaren heriotza solemnean).

Atari zabalean, eguratsean, mai-inguruan zeuden, illunabarreko urre-dirdaiean bildurik. Etxeko guziak atsegin biozkorrez eta zorionka artu zuten. Bere artantxe guzien aurrean esan zion aitak: "oraintxe, seme, nire eginbearra bete diat. Niri erakutsia baño askoz geiago dakik... Erorri dagokik bidea aukeratzea; ere eskuko uzten aut". Bertatixe –dio Mistralek– oiñak aitaren landetxean, begiak Al-pilla mendietara, nire baitan eta nire buruz artu nun erabaki au: lenik, eskola guzietan bear ez besteko azibidez betiko galtzen nekus an yaioterri-gogoa Provenza' n piztea; gero berpizte ori izkuntzaren eta istoriaren bidez aurreratzea, eskola guzietan gerra gogorra ta eriogarria egiten baitiote; ta azkenik, Proventzerari gaiñak ematea, yainkotar den poesi txingar bidez.

Ta gaztezeroaren oiñean, osasunez, gorputz ta arimaz eder, adimiburukarako gai ta bizkor, ta poesi goienaren arnasez biotza gaindiero, arrano-egaldi bizkorrez, agur egin zion uriari, ta yakiñaren gainean, gizauren erritar au, bere landako zerua besterik ez ikusi-beharran gelditu zen, eta yaiterriko lurrin irakiña artuki, atsalde batez, goldearen atzetik nekaziak ildoaren atzetik azaroan kantari ari zirela ekin nion ¡Gora Yainkoa! –dio Mistralek–. Mirei'ren leen-kantuari. Gauzak ez du beste itxurarik poema ori irakurri ezkeru (M, II-III).

### 3.3. Pizkundera poesiaren bidez

Hau ere alor aski harrotua da. Mistralek, probentzerari gainak eman, “yainkotar den poesi txingar bidez” eman nahiko dizkio (M, III). Nahi ezezik, Mistralek poemarekin zinez burutu ere duena, Orixeren ustez, iraultza bat izan da: “Provenza osoa olerkari orren gogora aldatu da. Mirei, izadiaren eta giza-biotzaren antzaldatze bat da, Provenza barrenetik asita Marsella‘rañokoan” (Ib.).

Orixek berak ez du poema bestetarako baino idatzi, ez duen “beure liburua” euskarak ere azkenik izan dezan. Gogora, baita:

Zatozkida, Goi-Arnas,  
eizu nerekin lan,  
erri baten arnasa  
mamitu dezadan.  
Geroak esan beza:  
“Erri bat izan zan”,  
edo-ta ats emaiogun  
ontan irauan dezan.

Puntu honetarako zein aurrekorako, ik. “Orixeren inguruko garai-giroaz”, in: *Jakin* 39 (1936) 119-139.

## 4. EREDU POETIKOA

Badaukagu, poeta nola gizartean situatzen den; bere munduan zer baloratzen duen eta zer ez; asmoak orohar zeintzu dituen poesia egitean. Aipa dezagun, bukatzeko, nolakoa egin nahi duen poesia. Estetika apur batean sartuko gara horrekin.

### 4.1. Naturaltasun epikoa

Orixek ez du nobela tzarretako eran, ez drametakoan, idatzi nahi (E, XXXIX), eta apenas gehiago lirikoan. Izan ere, badirudi, genero horietan irudimena eta kreazio



arbitrarioa libre dabiltzala. Orixek, aldiz, osoki onartzen eta maitatzen duen errealitate baten barruan situatzen bait da, ez du ezer irudikatu, ez asmatu nahi, “gauzak eskuarki edo komunzki gerta oi diranez” azalduko ditu (Ib.).

Ez dut lan ontan deusik asmatu. Erria dan bezala azaltzen saiatu naiz: *res ipsa loquatur*: gauza bera mintza bedi. Zertako ni asmaketan asi? (E, XLI).

Eunetatik larogeita amabost, gutxienik, neure begiz ikusiak, neure belarritz entzunak ditut (Ib.)

Olerkiak, irudimenean baino, naturan egon behar du tinkatuta (errealitatean), Orixeren ustetan. Oinarrিতua ezezik, haren kontrolpean aritu, ez irudimen zoroaren hegaldi oinarrigabe subjektiboetan dantzari. Mistralek, *Mireio*-ren ondoren, *Calendau* atera zuen, zazpi urtetan landutako obra. Baina *Mireio*-n, gogoratzen digu Orixek (Mistralen beraren aitortzaz baliatuz), “izadia edo naturaleza nagusi, ta *Calendau* iduria”. Horregatik bigarren honek ez zuen lehenaren bikaintasunik lortu, “balio aundiko eta begi onez ikusia” izan arren (M, IV).

## 4.2. Etortasuna, herrikoitasuna

Orixeren estetika literarioko bi kontzeptu giltzarriok elkarrekin lotutua daude, eta biak daude naturaltasun epikoarekin erlazioan.

Etortasuna (etorritzkoa) “ekarrizkoari” kontra jartzen zaio (E, XXXIX). Batetik –gorago esandakoaren ildo beterik– etorria dago inspirazioa, naturaltasuna, espontaneitatea, zindotasuna. Bestetik, ekarria: landuketa, irudipena, asmazioa, artifizialtasuna (ikus kontzeptuon gatzelaniazko itzulpenak, XXXVIII). Orixek, Orreagako poema bat egiteari utzi (“gauzak ekarri egin behar ziren tiraka, etorri ez bait ziran egiten”), eta etorritzkoa egiten saiatuko da (Ib.). Bata barnetik bizi-bizi sortu egiten zaio poetari; bestea zatika-zatika bildu eta ekarri egin behar izaten da gure kanpoan.

Lamartinerekin Orixek bere buruari galdegiten dio, “zergatik ote-ta lan (*Mireio*) onek zaustada edo biotzondoko zoragarrigoa ematen dun, gizaldi artako olerkaririk bikaiñenak baiño”. Ez du, gero, nolana hikoekin neurtzen: “arean, Byron, Goethe, Schiller Lamartine‘n beraren leikideenak baiño, ta onela erantzuten du: gu landuketa gera, ta Mistral bezalakoak etorria; gu gogoetalar, ua biozti...” (M, III-IV).

Etorriarekin bat herrikoitasuna espresioan. Mistralek “provenza-eraz bertsuak” (M, II) egingo dituen moduan, Orixek “erri bertsuak” egingo du (E, XLI). Are, “au izan duten asmo: nik moldatu dudana poema au, erriak moldatuta litzan gisan egitea; nik egin ditudan bertsu ok, erriak egin zezaken gisan egitea” (XXXIX). Hau dela eta, Orixek Homerorekin berarekin disentitzen ausartzen da: “Homer‘ek ere seineurriko orde (hexametro orde) solaskarako (logaedikos) egin izan balitu (bertsoak, obeki lirudiket, errritarrago bailitzake, eta erri-bertsuetan ere errez esan bailitezke ain gauza aundiak, ezpainak asko arrotu bage” XLI).

“Izkuntza, berriz... or dago korapiloa!” (XLIII). Horra, bada, literatura egin nahian eta arazo linguistikoei buru egin beharrez; hots, hizkerazale, hiztegi gile, araugile linguistiko eta, areenean, folklozezale ere nolabait izan beharrez (M, V, E, XXXIX, XLIII). Mistralek “bere erriko izkuntza mordoillotik izkuntza yatorra atera du, iduritasunez eta mintxotasunez yantzia iduripenaren eta belarrien zoragari” (M,

III). Orixek bere "euskara batua" asmatu beharko dizu ("ez da guzien euskera, guzien euskerarik ez baita. Izan balitza, ua emanen nizun"). h.d.. "geienik konpreni ditekena (...), asi Xuberotik eta Bizkaraiño" (E, XLIII)

Dena dela, Orixe sinestuta geratu bide da, etorritz eta herrikoitasunez berak egin duen poemarekin, "Europan iñon poema errikorik egin bada", euskaraz egin dela (XLI). Euskararen beraren dohain aparte eskerrak, besteak beste. "Gure euskera bizkor onek, ondoko erderak baiño erri-erriari gauza izkutugoak eta geiago adierazi baitezazkio, nik uste" (Ib.).

Orixeren estiloak

Joxe Austin Arrieta

*Orizian, E. T. G. 1987-1988*